

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5379

EBAZPENA, 2020ko azaroaren 25ekoa, Kulturako sailburuordearena, zeinaren bidez itsas kultura-ondarearen garrantzia nabarmentzeko dirulaguntzak ematen baitira 2020. urtean.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko uztailaren 22ko Aginduaren bidez, itsas kultura-ondarearen garrantzia nabarmentzeko 2020ko ekitaldiko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egin zen (irailaren 1eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 171. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea bukatu da, aipatutako aginduaren 9. artikuluekin bat etorritz. Bada, agindu horren 14. artikuluan ezarritako Balorazio Batzordeak bilera egin zuen eskabideak aztertzeko, eta haiei buruzko ebazpen-proposamena eman zuen 2020ko azaroaren 24an.

Balorazio Batzordeak egindako proposamena ikusita, eta aginduekin eta gainerako xedapen orokorretan ezarritakoarekin bat etorritz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— I. eranskinean jasotako proiektuak ez onartzea, kasu edo ontzi horiek ez direlako dirulaguntza jaso dezaketen kasu edo ontzi arautzailezat hartzen.

Bigarrena.— Dirulaguntzak ematea II. eranskinean zerrendatzen diren eskatzaileei, han zehazten diren zenbatekoen arabera.

Hirugarrena.— Onuradunak dirulaguntzak arautzen dituen aginduak ezarritako baldintzen mende geratzen dira, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan indarrean dauden gainerako baldintza orokorren mende ere.

Laugarrena.— Diruz lagundutako jarduera guztiak amaitzeko epea 2020ko abenduaren 31n bukatuko da, dirulaguntza hauek arautzen dituen aginduaren 7. artikuluekin bat etorritz.

Bosgarrena.— Aginduaren 22. artikuluan ezarritakoaren arabera ordainduko dira dirulaguntzak. Emandako dirulaguntzen justifikazioa eta likidazioa egiteko, aginduaren 24. eta 25. artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio. Betiere, diruz lagundutako proiektuak justifikatzeko epea 2021eko urtarrilaren 15ean bukatuko da.

Seigarrena.— Gastua justifikatu ondoren ordainduko dira agindu arautzaileen kontura emandako dirulaguntzak, dirulaguntzaren indarraldiaren bukaeran eta, betiere, eskatutako agiriak aurkeztu ondoren.

Zazpigarrena.— Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

Zortzigarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikulua ezartzen duenarekin bat.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, interesdunek ebazpena jaso eta biharamunetik aurrera edo, hala badagokio, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 25a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

I. ERANSKINA

Esp.	Eskatzailea	Jarduera	Ukatzeko zergatia
004-IKO-2020	Antía Vinos, Iñigo	Puesta en valor de la embarcación Kresala	Itsasontziaren kultura-balioarekin bateragarriak ez diren materialak erabiltzea
007-IKO-2020	Sociedad Cultural de Investigación Submarina INSUB	Orioko Itsasontziak: Ikerkuntza eta Balioztatzea	Agindu honek ez ditu horietako jarduerak diru-laginuntzen
013-IKO-2020	Fundación Atyla International Training Ship Foundation	Divulgación de la importancia histórica y patrimonial de la embarcación Atyla. Exposición en Museo Marítimo de Bilbao	Atzerriko pabilioiko ontzia da
014-IKO-2020	Fundación Atyla International Training Ship Foundation	Reparación de la embarcación Atyla y licencias y permisos para su navegación	Atzerriko pabilioiko ontzia da

II. ERANSKINA

Esp.	Eskatzailea	Jarduera	Zenbatekoa
1. Lerroa			
011-IKO-2020	Arma Plaza Fundazioa	Puesta en valor del barco Mariñel. Hondarribia	20.625,00 €
010-IKO-2020	Bermeoko Udala	Ortute atunontzia	16.943,50 €
021-IKO-2020	Fundación Museo Marítimo Ría de Bilbao	Actuaciones Itsasmuseum	8.368,34 €
		Guztira 1L	45.936,84 €
2. Lerroa			
015-IKO-2020	Albaola Elkartea-Asoc. para la difusión del Patrimonio Cultural Marítimo Vasco	Ozentziyo: mantenimiento y puesta a punto	7.487,92 €
002/1-IKO-2020	Amuaitz Lertxundi Villanueva y otro CB	Ostarte sailing. Lucretia	3.709,27 €
002/2-IKO-2020	Amuaitz Lertxundi Villanueva y otro CB	Ostarte sailing. Tanit	1.593,55 €
019-IKO-2020	Asoc. Itsas-Gela Aula del Mar	Mater: Seguridad y navegación 2020	12.395,61 €
003-IKO-2020	Isuntza Arraun Elkartea	Kulixka, zurezko yatea berreskuratzea zerbitzu publikorako	13.584,80 €
		Guztira 2L	38.771,15 €
3. Lerroa			
012-IKO-2020	Ayuntamiento de Lekeitio	Garraitz uhartea berreskuratze eta balioa emateko exekuzioa	10.046,03 €
		Guztira 3L	10.046,03 €
4. Lerroa			
018-IKO-2020	Albaola Elkartea-Asoc. Para la difusión del Patrimonio Cultural Marítimo Vasco	Ozentziyo Atraque	1.500,00 €
005-IKO-2020	Beduola Untziola Elkartea	Kabudo batela konponketa lanak	2.032,50 €
022-IKO-2020	Damborenea Basterrechea, Enrique	Mantenimiento de embarcación tradicional, tipo Potin, San Andrés y Ánimas	1.110,43 €
009-IKO-2020	Viñas Gómez, Aranzazu	Reconstrucción batel Begoña	603,05 €
		Guztira 4L	5.245,98 €
		Guztira	100.000 €